

Osoko Bilkurak, 2020ko otsailaren 25ean, egindako bilkuran besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

4.- Udal Jabetza Publikoa okupatzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza Fiskalaren 3. eranskinean (Bde Publikoen aprobetxamendu bereziak); 2. eranskinean (gainerako aprobetxamendua bereziak); c) atala: klean salmenta postu finkoa eta f) atalak aldatzea.

Gobernu taldeak 2020/2021 ikasturtean ordaindu beharreko Tasen Ordenantza Fiskala aldatzeko proposamena aurkeztu du, proposatutako igoera %0,8koa da.

Kontu-hartzaileak 2020ko otsailaren 5ean egin du txosten tekniko-ekonomikoa

Antolaketa batzordeak, 2020ko otsailaren 13an emandako irizpide kontutan hartuta.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

Lehenengo: Udal Jabetza Publikoa okupatzeagatik ordaindu beharreko ordaindu Tasen Ordenantza Fiskalaren 3. eranskinean (Bide Publikoen aprobetxamendu bereziak) , 2. apartatuaren (Gainerako Aprobetxamendua bereziak) c) atala: Klean salmenta postu finkoa eta f) atalak aldatzea, aldaketak eragina sortu da GAOn argitaratu ondoren, horrela da:

c) Klean, salmenta postu finkoa:	
Izozkiak, txurroak, buñueloak : hilero/m ²	15,00
Gaztainak (urriaren 1etik martxoaren 31 arteko aldia): hilero/m ²	10,00
Baimendutako beste artikuluko batzuk (m ² -ko edo zatika) eguneko	9,70

f) Bide publikoan noizbehinkako okupazioak (San Joan jaiak, Inauteriak, San Inazio, etab.), Gipuzkoako Feriariaren Elkartearekin izenpetutako Hitzarmenez kanpo geratzen diren postuak eta ordenantza honetako gainerako ataletan ez aurreikusitakoak	
Merkantzien salmentak: Bisuteria, larruzkoak, eskuz egindakoak, arropa... metroko:	
* Eguneko	19,50
*jaiak irauten duten egun-guztiengatik	59,00
Ostalaritzaren zerbitzuak: Hamburgesak, ogitartekoak, ... saltzea, metroko eta eguneko	41,10

Bigarren .- Erabakia 30 egunez jendaurrean jartzea, erreklamazioak edo oharrik egin ahal izateko.

Hirugarren .- Hartutako erabakia jendaurrean egondako arauzko epean inolako erreklamazio edo oharrik egiten ez bada behin betiko bihurtuko da.

Laugarren.- Alkateari ahalmena ematea erabakiaren testua eta tributuak arautzen dituzten ordenanzak baterabiltzeko, udalak onartutako aldaketa guztiak sartuz.

Jakinaren gainean egoteko eta dagozkion ondorioak izateko bidaltzen dizut erabakia. Dena den, udalbatzarraren akta onartu gabe dagoela ohartarazten dizut.

Hernanin, 2020ko otsailaren 26an.

